

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Talde Popularreko zinegotzi Jorge Mota Iglesiasek, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Oleta plazan eta haren inguruko kaleetan zuhaitzak kimatu gabe eduki eta argi gutxi izateaz egindako interpellazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Denbora gehitxo da Oleta plazako eta haren inguruko kaleetako zuhaitzak behar bezala kimatu gabe daudela. Horren ondorioz, oso behean daude adarrak, jendeak eskuekin heltzeko moduan, eta baita zenbaiti buruan jotzeko moduan ere. Segurtasun-arriskua eragiteaz gainera, farolen argiak tapatu ere egiten dituzte adarrek, eta erdi-ilunean utzi farolaren ingurua.

Gune Publikoen Batzordeak ekainean izan zuen bileran, programatuta zegoela kimaketa eta «laster» egingo zutela esan ziguten. Epeak pixka bat zehazteko eskatu genuenean, ordea, «egingo dudala esaten dudanean, egin egingo dut» erantzun ziguten, noiz kimatu behar dituzten batere adierazi gabe.

Erantzun hori ez da batere egokia, eta zalantza handia sortzen die bizilagunei.

Gogorarazi dezagun, erantzun hori eman zigun talde politiko bereko zinegotzi zen Marisol Garmendiak –udal taldearen bozeramaile eta arlo horren arduradun zenak– kimaketa horiek neguan egiten zirela erantzuten zigula.

Dagoeneko udan gaude, ordea, negua pasa zen eta oraindik ez dugu ekintza zehatzik ikusi.

Agindutakoa ez betetzea eta komunikazioa ondo ez zehaztea etsigarria da erabat, eta komunitatearen premiak ondo ez planifikatzearen eta premia horiekin konpromiso falta izatearen erakusgarri da.

Parkeko eta haren inguruko kaleetako argi asko hostoz estalita daude, eta horrek oraindik eta gehiago txartzen du lehen ere oso handia ez den argitasun falta.

Argiak estalita daudenez, erdi-ilunean geratzen da parkea, eta segurtasun-falta irudipena ematen die bizilagunei.

Orain den kudeaketak bistan uzten du kasurik ez zaiola egiten komunitatearen segurtasunari eta ongizateari eragiten dion arazo bati.

Inausketa falta ez da kontu estetikoak bakarrik; herritarren segurtasunari eta bizikalitateari eragiten dion kontua ere bada.

Gobernu taldearen erantzunak, lasaitu beharrean, gehiago etsitzea eta konfiantzarik ez izatea ekarri die bizilagunei.

Eskatzen dugu, bada, ahalik eta azkarren kimatzeko edo epe argi eta zehatz bat emateko aipatutako inguruko inausketa egiteko.

Izan ere, bizilagunek eskubidea daukate ingurune seguru eta egokian bizitzeko, eta gobernu taldearen erantzukizuna da hori horrela izatea bermatzea.

Gardentasuna eta komunikazio eraginkorra funtsezkoak dira herritarrek agintariengan konfiantza izaten segitzeko.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

## KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio hitz emateko Oleta plazako eta haren inguruko kaleetako zuhaitzak ahalik eta azkarren kimatuko dituztela.
2. Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio hitz emateko ahalik eta azkarren kenduko dituela Oleta parkean eta haren inguruko kaleetako farolen argiak tapatzen dituzten adarrak eta hostoak.

Donostian, 2024ko uztailaren 19an.

Jorge Mota Iglesias

Udaleko Talde Popularreko zinegotzia